



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/10/18 Udaletxean 18.00-19:45



Gaurkoan bildu gara,

- Adur Ezenarro (Bildu)
- Iñaki Dubreuil (PSE)
- Jose Ignacio Mendizabal (Herri ekimena)
- Edurne Huesa (Landarlan Ingurumen elkarteak)
- Patxi Arrospide (Herritarra)
- Carlos Gonzalez (Irabazi)
- Josemi Santamaria (Alkatea)
- Manuel Iturrioz (EAJ)
- Mila Sukia (Ordizia Orain)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Gai ordena

Bileran ondoko gaia landu zen:

1. **Aurreko aktaren onarpena**
2. **Arrasateko bileraren informazioa**
3. **Edukiontzien bidezko sistema**
4. **Hondakinen prebentzio astea**
5. **Galde-erreguak**
6. **Hurrengo bilera**

Aurreko aktaren onarpena

Aurreko akta ez da onartu.

BILDU: Audioaren grabazioa entzun nahi du bere ustetan berak ez duelako esan ez dagoela ados Sasietak zehaztutako puntuekin baizik eta bera ez dagoela ados puntuak zehazteko eman den prozesuarekin.

Audioa entzun eta gero esango du zein aldaketa egin nahi dituen.

Arrasateko bileraren informazioa

Arrasateko bilerara Ordizia Oraineko Mila Sukia eta Juan Ignacio Alonso, EAJko Angelica Moreno, Patxi Arrospide herritarra eta Rosa Aurkia teknikaria joan dira.

Ondorengo informazio hau jaso dute:

- Organikoa eta errefusaren edukiontzia egunero dago irekita. Biak zarraila elektronikoa dute (Sasietak berdina du).



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/10/18 Udaletxean 18.00-19:45



- Edukiontzien irekiera zonaldeka dago banatuta, herri guztikoak ezin dira ireki. Bakoitzak zehaztuta dauka zein puntutako edukiontziak ireki ditzaken.
- Kalitateko zerbitzua organikoaren edukiontzian: inpropioak %3 batetan dituzte. Helburua %0 bat lortzea.
 - o Hasieran bi pertsona jarri zituzten bi turnotan:
 - Bata astelehenetik larunbatera
 - Bestea astelehenetik ostiralera
 - o Gaur egun pertsona bat dago.
 - o Ostiraletan Mankomunitatean jarraipen bilera egiten dute.
 - o Larunbata erabiltzen dute informazioa emateko.
 - o Etengabeko kanpaina pertsonalizatua da.
 - o Beti ere informatiboa, isunak jarri gabe.
- Edukiontzi bakoitzak bere barra kodea dauka eta bertan arazo guztiak erregistratuta geratzen dira.
- Edukiontzi aurrean utzitako poltsak ireki egiten dituzte. Ondo bereiztuta badago dagokion edukiontzira botatzen dute bestela errefusara.
- Edukiontzian inpropio asko badago hau prezintatu egiten dute.
- Ontzi arinetan: % 13-15 inpropioak
- Organikoen poltsak erosi egin behar dituzte baina aukeran dute poltsarekin edo poltsa gabe organikoa edukiontzira botatzea.
- Edukiontzia irekita mantentzeko, tapa tuneatu egin dute, barilla baten bidez edukiontziko tapa irekita geratzen da.
- Papera eta ontzi arinaren edukiontziak tapa osoa irekitzeko aukera dute giltza baten bidez. Bolumen handiak botatzeko erabiltzen dute. Behar duten komertzio eta erakundeei giltza hau ematen diote.
- Aurre bilketako zerbitzua: Lurreko poltsak jaso eta bereiztuta badago, dagokion edukiontzira botatzen dute.
- Puntu ez irisgarrietan edukiontziak: "Portacontenedores" bat dute eta honek edukiontzia ematen du kamioia iristen den lekura.
- Arrandegiak: Herri bakoitzetan puntu konkretu bat dute beraien hondakinak uzteko eta ondoren, errefusarekin kudeatzen dute.
- Kale garbiketako hondakina errefusaren % 30-33 bat da.
- Kale garbiketako hondakina errefusetik bereiztu nahi dute. Gutxiago ordaintzeko.
- Etorrinak: gida minimo bat prestatu zuten hizkuntza ezberdinetan.
- Ordenantza: Mankomunitateak badu baina Udalak ez dute. Ordenantza hau zaharkitua dute eta berri beharra dute.
- Organikoaren txartela: Familia bakoitzari bat ematen diote baina bat baino gehiago nahi badute edo galtzen badira, 2€tan nahi adina txartel dituzte.
- Edukiontziak garbitzeko beste kamioi bat erosi behar dute.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/10/18 Udaletxean 18.00-19:45



Hainbat iradokizun egin dira:

ARRANDEGIAK

- ORDIZIA ORAIN: Udal langile bat egunero arrandegietara joan daiteke eta bertako hondakinak hartu eta Ordiziako garbigunera eman ditzake.
- BILDU: Zabor tasa jaitsi egin zaie, etxebizitzetako tasa bezalakoa da, ez dugulako zerbitzua eskaintzen.
- ORDIZIA ORAIN: Nik uste hondakin guztiak beraiek ematen dituztela garbigunera. Ez zaie bilketako zerbitzua ematen.

KALE GARBIKETAKO HONDAKINA

- BILDU: Galdetzen du ea nola bereizten duten kale garbiketako hondakin hau.
- TEKNIKARIA: Arrasaten nola egingo duten galdetuko du.

ETORKINENTZAT GIDA

- PSE: Hizkuntza ezberdinak aukeratu beharko ditugu eta Ordizian ere gida bat egin beharko dugu.

Edukiontzien bidezko sistema

TEKNIKARIA: Lehen atez ateko zutabeak zeuden leku batzuetan poltsak lurrean uzten dira. Lehenengo astean Udalak bildu zituen baina orain, Sasietak ostiraletan jasoko ditu. Puntu hauetan kartel bat jarri da esanez poltsak lurrean ezin direla utzi.

ZONAK: Filipinak 20 (bizilagunak kartel bat jarri dute), anbulatorioko beheko sarreran, Astokalen, Urdaneta kalean, Sasietak zona hauek identifikatuta izango ditu.

BILDU: Txartelak ez dira iritsi, alde zaharrea komertzioetako bilketa ez da ondo egin eta Otegienean zarrailak alderantziz daude, errefusana egunero irekitzen da eta organikoarena astean bitan.

Jendeak ez ditu txartelak. Kontrastatu daiteke zenbat herritarrak duten txartela. Datu hori Sasietari eskatu.

BILDU: Hondakinen mahaiaren ez da sistema honen aldaketaren inguruko ezer esan, herrian oso informazio gutxi eman da, kanpaina ia inexistentea izan da.

EAJ: Nik hainbat lekutan irakurri dut informazioa. Kanpaina hauetan informazioa eman behar da baina hartu ere egin behar da.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/10/18 Udaletxean 18.00-19:45



PSE: Ez dakigu zenbat jendek gaizki egiten duen, zeinek ez duen txartela,.... Hau ez badakigu ez dakigu komunikazio kanpaina iritsi den ala ez.

ORDIZIA ORAIN: Badakigu nork ordaintzen duen zerga eta nork duen txartela. Txartela ez badute etxera bidali beharko litzaietxe beraiek eskatu gabe.

EAJ: Kontrastatu datu hauek eta ikusi zenbat jendeari txartela falta zaion.

IRABAZI: Edukiontzi inguruak ez ditut hain gaizki ikusten.

BILDU: Neri hasieratik hasia gustatuko litzaidake. Mahaian ez da azaldu edukiontzien puntuak jartzeko irizpideak zeintzuk izan diren, mahaian ez da prozesua azaldu, prozesu hau azaltzea nahi dut eta ondoren ekarpenak egingo ditugu.

ORDIZIA ORAIN: Irizpide hauen inguruko azalpenak eskatzen ditugu. Dauden kexak ere aztertu behar ditugu mahaian.

BILDU: Portal bakoitzean informatu etxe bakoitzari zein edukiontzi puntu dagokion. Hasieran inertiagatik zutabeak zeuden lekura eman ditzakete poltsak. Udal aldizkarian informazioa eman behar da.

IRABAZI: Hilabete bat pasatzen utziko nuke, ikusi arte zer gertatzen den.

Txartelen jarraipena egingo da. Txartela ez duenari bidaltzea egokia dela pentsatzen dute. Txartela bidaltzen zaion pertsonari, eskutitz bat bidaliko zaio pixoihalen edukiontzia ireki behar balu eman behar dituen pausuak azalduz.

BILDU: Kanpon utzi diren poltsekin zer egiten den jakitea gustatuko litzaietxe. Bai edukiontzi kanpoan uzten diren poltsekin bai beste puntuetan azaltzen diren poltsekin.

TEKNIKARIA: Komertzioak sortzaile bereziak dira. Baina orain hondakin gutxi sortzen dutenei aukera ematen die atez ate bildu beharrean edukiontzira ateratzeko. Aldaketa hau Sasietak egin du.

EDURNE: Puntu berriak sortu dira eta kexak daude. Kamioiak zarata handia ateratzen du, ez du legea betetzen. Ez bada betetzen puntu hau aldatu egin behar da edo bestela bilketako ordutegia aldatu behar da. Kexa hauek mahai honetan ere landu behar dira.

EDURNE: Edukiontzi horiak oso beteta daude, askotan gainezka egoten dira. Iturtxoko puntuan espaloia oso txikia geratzen da.

PATXI: Gehiagotan bildu edo edukiontzi hori gehiago jarri behar da.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/10/18 Udaletxean 18.00-19:45



ORDIZIA ORAIN: Edukiontzien kokapena zehazteko Irizpideak azaltzea norbaitek etori behar duen aurretik jakitea gustatuko litzaiguke.

Ordizian hezitzaileak kontratatzeko kasuan, Sasieta bidez edo Udalaren bidez (enplegu plan batekin, enplegu berdea,...) egingo den hitz egiten egon gara. Arrasateko kasuan nor egin duen kontratazioa galdetzekotan geratu gara.

IRABAZI: Kontsulta aurretik erabaki genuen gaikako bilketa tasa minimora ez bagara iristen neurriak hartuko ditugula, sistemari denbora bat eman ikusteko zein tasatan gabiltzan.

Hondakinen prebentzio astea

TUPPER KANPAINA

Sasieta Inñak ez du kanpaina hau berriro egiteko asmoa.

GIDA ZALANTZEKIN

Gida ez dute banatuko eta gainera banatzekotan gaikako bilketa tasa txikia duten udalerrietan egingo dute.

Urte hasieran ontzi arinen inguruko gida bat aterako dute.

KOMERTZIOAK

Komertzio teknikariarekin harremanetan jarriko gara.

Komertzioak zerbait egiteko asmoa al duten galdetuko dugu. Zozketa bat antolatu daiteke, tupper edo poltsa berrerabilgarriarekin joaten denari zenbaki bat eman zozketan parte hartzeko.

PLAZA ZIKINA

Haurrekin ekimen bat egiteko aurrekontu bat eskatuta dago.

KOLILLAK

Gasteizko merkataria jarritako zutabeak dira ostalarientzako.

POLTSEN KARAKTERIZAZIOA

Plazara errefusaren edukiontzia ekarri eta poltsak atera eta karakterizazio bat egin daiteke. Jendea gonbidatu bertan parte hartzea.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/10/18 Udaletxean 18.00-19:45



Galde-erreguak

PATXI: Pixoihalak birziklatzeko enpresa bat sortuko dela entzun dut. Ordizia Udaleko Sasetako ordezkariak zerbait dakiten galdetzen du.

PSE: Goiekiko ideia berritzaileen lehiaketara aurkeztu zuten proiektu bat da eta biabilitate plana lantzen ari dira.

ORDIZIA ORAIN: Sasetara aurkeztuko zuten proiektu hau.

Hurrengo bilera

Azaroko bilera: azaroaren 8an arratsaldeko 18:00etan.